2. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburu nagusia gazteei laguntza eskaintzea da, haien etorkizunean zein lanetan jardun nahi duten jakiteko.

Gure balioa kualitatiboa izan daiteke, sortuko dugun zerbitzuaren kalitatean zentratuko garelako. Gure proiektua, web orrialdea gazteei haien gustuko lana bilatzeko ematen dien zerbitzua da. Honetan, bezero bakoitzak gida espezializatu bat edukiko du, hala nola, bezeroak berak aukera izango du bere praktika edo lanpostu ideala aukeratzeko. Gure web orrialdeak eskainiko dituen zerbitzuen prezioak merkeak izango dira, edozeinek ordain dezakeenak. Gure zerbitzuak arriskuen kontrako murrizketak edukiko ditu, eta asegurua ordaitzeko aukera egongo da. Kontratuak zehaztuta egongo dira, horietan, ezintasun tenporala gertatzekotan, falta zaizkien lan egunak gordeko zitzaizkiela aseguratzen dizkie eta jarraitzeko moduan daudenean bueltatuko lirateke ezer gehiago ordaindu barik. Beste aldetik, edonork, informazioa googleren bidez eta gure aplikazioaren bidez eskuragarri edukiko du. Gainera, edonork erabili ahal izateko, erregistratu ostean pausuka eta modu errezean eta argian azalduta egongo da.